

TXISTE-BILDUMA

1. KREDITU TXARTELA

Ama batek besteari:

- Joan den astean kreditu txartela lapurtu zioten semeari.
- Ez esan! Eta jakinarazi al diozu udaltzaingoari?
- Ezta pentsatu ere! Lapurrak semeak baino bost aldiz gutxiago gastatzen du!

2. POLIGLOTA

- Edurne, zuk ba al dakizu nola esaten den “Bai!” ingelesez?
- Bai, noski!: “Oui!”
- “Oui”? Baina hori frantsesa da eta!
- Hara! Beste hizkuntza bat dakit!

3. SAGAR ERORIA

Nekane sagar batzuk "lekuz aldatzera" -lapurtzera ez esateagatik- joan omen zen baserri batera, eta zuhaitz gainean zegoela baserritarra agertu omen zitzaion begietatik sua zeriola:

- Zer habil hi hor, mukitsu alaena! -makila astinduz-.

Eta Nekane patxada ederrean:

- Eh, lasai, lasai! Nik sagarrak lurrean aurkitu ditut. Orain, berriro zintzilikatu nahian ari naiz.

4. AKATSIK GABEA

Kattalin, medikuaren kontsultara sartu da:

- Mediku anderea. Nik asko ikasten dut, kirola egunero egiten dut, ez dut piperrik egiten eskolan, ez naiz inorekin haserretzen, ez dut gozokirik ukitzen, gutxi eta ondo jaten dut, eta goiz oheratzen naiz.

Eta medikuak, harrituta:

- Baina zuk ez al duzu akatsik edo?
- Bai... gezurtia naiz.

5. AITA ERE ZIKOITZA

Martin Xuhurri kastatik omen datorkio. Bere gurasoak, bera bezain zekenak omen ziren. Eta bere aitona-amonak, seme-alabak eta iloba guztiak batera baino "eskulaburra"goak.

Halaxe erantzun omen zion behin amonak, Londresen ikasten ari zela, 500 euro eskatuz gutuna bidali zion semeari:

- "Seme! Bidali dizkizut eskatu zenizkidan berrogeita hamar euroak. Eta ea idazten ikasten dugun: berrogeita hamar, zero bakarrarekin idazten da!".

6. IKUSKIZUN GARESTIA

Zirkua iritsi zen herrira, eta bazter guztietan itsatsitako txartel erraldoiek, ikuskizun ugari eskaintzen zituzten: akrobatak, trapezistak, pailazoak, eta denen artean txundigarriena, su-irenstailea!

Herriko jendea, horrelakoetan gertatu ohi den bezala, zirkua kokatu zen zelaira hurbiltzen ari zen ikusmiran. Izaro, ez zen horrelako ikuskizunen zalea, baina Eneritzek behartuta, berak ere karabanak biltzen ziren ingurura joan behar izan zuen.

- Sar gaitezen Izaro, horrelako ikuskizunez gozatzeko paradarik ez dugu puska batean izango eta!
- Baina Eneritz!
- Zaude isilik Izaro. Nire urtebetetze egunean, ez zenidan itxurazko oparirik egin, eta gaurkoagatik behintzat, amore eman beharko duzu.

Izaro marmar batean inguratu zen leihatilara, bere lagunak lazoan sartu zuelakoan:

- Zenbat da sarrera?
- 20 euro.
- 20 euro? Oso garestia da!
- Zuk erabaki!
- Orduan, ekar ezazu txartel bat, lagunak eta biok begi bana besterik ez dugu irekiko eta.

7. BALLETEKO DANTZARIAK

Aneren iloba bat agertuko zela eta, Martini, ballet ikuskizun batera lehen aldiz joateko aukera egokitu zitzaion. Sartu eta haurrak dantzari hasi zirenean, Martin erabat harriturik geratu zen balletaren teknikaz.

Ikuskizuna amaitu eta etxera bidean, obraren gorabeherak komentatzen ari zirela, Martinek serio-serio honela esan zion Aneri:

- Bada gauza bat nik ulertu ez dudana. Zergatik ibili dituzte obra guztian dantzariak hanka puntetan? Altuagoak aukeratu besterik ez zuten!

8. LOROA ETA HONTZA

Emakume hark ez zuen bere denboran loritorik edo perroketik ikusi, baina beste kapritxorik ez zeukan. Bakarrik bizi zela eta konpainia egiteko loroa behar zuela, eta loroa behar zuela.

Halako batean joan da animalia denda batera eta loroa nahi duela adierazi dio saltzaileari:

- Eta nolakoa nahi duzu?
- Ez dakit, bada. Egia esan, nik ez dut sekula lororik ikusi baina oso jatorrak eta sinpatikoak direla esan didate eta bakarrik bizi naizenez, konpainia egokia izango dudala iruditu zait.

Hori entzunda, dendaria azkar asko ohartu da emakumeak lorioei buruz ezertxo ere ez dakiela eta loroaren ordeaz aspaldiko urteetan armairuan gordeta eta saldu ezinik daukan hontza atera dio:

- Hauxe duzu loro egokia.
- Eta hitz egiten al du?
- Oraindik ez, baina gutxi falta zaio.
- Eta ikasiko al du hizketan?
- Ez du ikasiko, bada? Hemendik aste pare batera isildu ezinik edukiko duzu.

Saldu dio hontza eta, badaezpada ere, dendariak helbidea hartu dio emakumeari. Pikaro samarra izaki, handik aste pare batera edo, eroslearen etxera azaldu da, barre pixka bat egiteko asmotan.

- Kaixo! Zu hemen?
- Bai. Loroa zer moduz dagoen jakitera nator. Hizketan ikasiko zuen honez gero!

Eta orduan, serio jarrita emakumeak:

- Egia esango dizut. Ikasi, ikasi, ez du oraindik ikasi. Baina hori bai, -begiak zabal-zabal eginik- arreta behintzat jartzen du!

9. ASTOA ETA LEHOIA

Astoa oihanean galdu eta lehoiarekin egin du topo. Kikilduta, belaunikatu eta erreguka hasi zaio:

- Ez nazazu jan! Kupitu zaitez nitaz!
- Lasai astoa! Ez beldurtu. Nik tximuak besterik ez ditut jaten eta!

Astoa lasaitu da, eta lehoiarekin batera abiatu da, bere galeraren nondik norakoak kontatzen dizkion bitartean. Berriketan eta kontu kontari, bat-batean elefanteentzako tranpa batean erori dira.

Zuloak izango du hamar metroko sakonera, eta ahaleginak eta bi egin arren, animaliek ezin dute atera. Egunak joan, egunak etorri, bertan geldirik eta inor azaltzen ez beraien bila. Orduan lehoiak astoari:

- Aizu asto, badut zuri zerbait esateko.
- Zer?
- Ez al didazu txartzat hartuko?
- Bururatzea ere! Dagoeneko badugu nahikoa konfiantza elkarren artean.
- Ez dakit ohartu zaren, baina tximu aurpegia ari zaizu jartzen.

10. ZINEMATIK IRTETEAN

Larunbat gauero bezala, bi arkakusoak zinemara joan dira. Ateratzerakoan, bata besteari:

- Eta orain zer egin behar dugu?
- Ni logurak nago eta etxera noa.
- Orduan, baita ni ere!
- Konforme!
- Eta nola joango gara? Oinez, ala txakur bat hartuko dugu?

11. ANIMALIA DENDAN

Miren animalia dendara sartu da eta:

- Animalia batzuk nahi nituzke.
- Zuk eskatu eta esango dizut une honetan dendan ba ote ditugun.
- Ederki! Pare bat dozena zorri, hiru sagu, dozena bat armiarma, lau bat arkakuso, ehun bat inurri eta hamar labezomorro.

- Eta jakin al liteke zertarako nahi dituzun horiek guztiak?
- Etkez aldatu behar naiz eta fidantza gisa utzitako dirua berreskuratzeke jabeak etxea hartu nuenean bezala uzteko eskatzen dit.

12. ELEFANTEAK TRENBIDEAN

Amona hark egunero-egunero egin ohi zuen Tolosatik Donostiarako tren bidaia. Eta bidaiari guztiak harrituta zeuzkan, egunero errepikatu ohi zuen usadio bitxi batekin. Egunkaria hartu eta orriak irakurri orduko, erauzi egiten zituen erditik, txiki-txiki egin eta pusketa guztiak bagoiko leihatilatik kanpora bota.

Egun batean, tren-kontrolatzailea portaera haren arrazoiak galdetzeraz auzartu zitzaion:

- Barkatu emakumea. Axola ez bazaizu, gauza bat jakin nahi nuke.
- Galdetu gazte, galdetu, nire esku dagoen neurrian lagunduko dizut eta.
- Hara... -kontrolatzaileak galdera nola borobildu ez zekiela- Zer dela eta botatzen dituzu egunero egunkari orri txikituak treneko leihotik behera?

Eta instantera amonak, zalantza izpirik gabe:

- Elefanteengatik!
- Elefanteengatik? -kontrolatzaileak, seko txundituta-.
- Zuk badakizu, elefanteak oso arriskutsuak direla trenbideetan, eta modu horretan nik uxatu egiten ditut.
- Baina hemen ez dago elefanterik eta!
- Ikusten! Ez dago hau bezalako erremediorik!

13. FROGAK FALTA

Akusatua espetxeratu ahal izateko frogak falta zaizkio epaileari:

- Aurkeztutako frogak eskasak dira, eta beraz, automobila lapurtzeagatik egin zaion akusaziotik errugabe aldarrikatu behar dut akusatua -epaileak gogo txarrez-.

Hori entzutean, Nora pozarren altxa da jarlekutik eta:

- Barkatu, epaile jauna. Zer esan nahi du honek? Automobila niretzat har dezakedala?

14. ZIN EGIN

Epaileak akusatuari:

- Jar ezazu eskua Konstituzioaren gainean eta zin egin ezazu egia, egia besterik ez eta egia osoa esango duzula deklarazioa egitean.

Hori entzutean, gaizkilea barre batean lehertu da:

- Ez, ez, ez... Ezta erotuta ere!
- Baina... zergatik ez duzu zin egin nahi? -galdetu dio epaileak, guztiz txunditurik-.
- Ni ez naizelako txoraa. Egia esaten badut, kondenatu egingo nauzu!

15. JOAN ETA HIL

Aurrenekoa joan eta hil egin zen. Hurrengoa joan eta hil egin zen. Beste bat joan eta hil egin zen.

Irakaspena: "Ez hadi joan!"

16. GUTXI EGINA

Aurreko batean, Tuteran afaltzen ari ginela, gizon tratedun dotore bat eseri zitzaigun aldameneko mahaian. Zerbitzaria berehalaxe inguratu zitzaion:

- Afaltzeko zer nahi duzu?
- Begira, atera iezadazu oilasko bat patatekin, baina hori bai... Oilaskoa gutxi eginda, bestela ezin dut irentsi eta.

Handik hamar bat minutura, zerbitzaria, patataz ongi hornitutako oilaskoarekin azaldu da. Utzi du mahai gainean eta buelta eman orduko bezeroak:

- Aizu! Zatoz hona!
- Bai?
- Eraman ezazu oilaskoa eta egin ezazu pixka bat gehixeago.
- Gutxi egina al dago?
- Kontxo! Patatak jaten ari zait eta!

17. PLATANOA

Mikelek belarrian platano bat daukala ikusi du Nabilek:

- Mikel, barka ezak, baina belarrian platano bat daukak.

Esandakoari arretarik eskaini ez dionaren keinu bat besterik ez dio luzatu erantzun gisa. Eta Nabilek atzera:

- Be-la-rri-an-pla-ta-no-bat-dau-ka-a-laaaaaa!!!

Mikel, ezta mugitu ere:

- Beee-laa-rrii-aan-plaaa-taaaa-nooooo-baat-dau-kaaaak!!!

Eta Mikelek:

- Nabil, esan beharrekoa beste belarritik esadak, belarri honetan platano bat zeukaat eta.

18. LEGATZ FRESKOA

Azken bolada honetan aurrezki kutxako enplegatu berria maiz etorri da Pilirenera eguneko menua jatera. Herrian dagoen menurik merkeena izanda ere, ordea, egunero izan du zerbaiten protesta.

Gaur, entsaladaren ondoren, legatza eskatu du. Postretarako zer nahi duen galdetzera hurbildu zaionean berriz, hara zer esan dion Piliri:

- Aizu, legatz hau ez da herenegungoa bezain freskoa.
- Harritzen naiz bada! Legatz berbera da!

19. EGURALDI IRAGARPENA

Bi aingeru solasean ari dira zeruko bazter batean:

- Biharko zer eguraldi iragarri du June Ansoleagak?
- Zeru lainotuak!
- Eskerrak! Banuen esertzeko gogoak!

20. HAUTSA

Nadia, Piliren tabernara sartu eta tortilla pintxo bat hartu du barratik. Esku ahurrean jarri eta putz egiten hasi zaio:

- Aizan, zertan ari haiz? Pintxoak hotzak zauden eta. Nahi badun berotuko dinat, baina beste era batera esan ezan!
- Ez dun horregatik Pili... pintxoari hautsa kentzen ari naun!

21. MINIK GABE

Alba hagina ateratzeko asmoz joan da dentistarengana. Atean txartel hau irakurri du: "HAGINAK ATERATZEA: Minik gabe 40 euro; minez 80 euro."

- Arraioa! -pentsatu du bere baitan-. Nola ulertzen da hau?

Txanda egokitu zaionean, dentistak agurtu eta:

- Nola nahi duzu ateratzea hagina, minik gabe ala bestela?
- Minik gabe noski, minik gabe! -erantzun dio gauza handirik ulertu gabe-.

Ahoa ireki eta dentista hor hasi zaio anestesiarik gabe hagina atera nahian, tira eta tira... Alba minak lehertu beharrean:

- Aaaaaai!

Eta dentistak:

- Isildu zaitez, bestela 80 euro kobratuko dizkizut eta!

22. ALKANDORARIK?

Mutil gaztea. Hiruzpalau egunetako bizarra moztu gabea. Egundoko begi zuloak. Ezkerreko zapataren lokarria askatuta, mukizapia poltsikotik zintzilik eta alkandora zikin-zikina. Itxura horrekin sartu da arropa dendara:

- Aizu, ba al duzue hau bezalako alkandorarik?
- Ez, hemen garbiak saltzen ditugu.

23. ZUHURREN ETXEA

Euskal Herriko familiarik zikoitzenean gaude. Ama garrasika sartu da sukaldean:

- Jose! Jose! Zatoz hona berehala!
- Zer gertatzen da ordea?
- Mikeltxok bi euroko txanpona irentsi du! Dei iezaiozu berehala sendagileari!
- Erotu al zara edo? Bi euro berreskuratzeko ehun gastatu behar al ditugu, bada?

24. AZKENA

Jone, gurasoak telebistari begira daudela sartu da etxera:

- Ezagutzen al duzue azkena?
- Ez! - erantzun diote biek-.
- Bada... ni naiz!

25. MATEMATIKA

Zatiketen logika ezin ikasleen buruan sartu, eta Karmele irakasleak adibide praktiko bat jartzea erabaki du:

- Ea, patata bat hartu eta erdibitzen badut. Zer daukat?
- Bi patata zati! -Alaznek-.
- Ongi. Eta zati horiek berriro erdibitzen baditut?
- Lau patata zati! -Anderrek-.
- Oso ongi. Eta zati horiek berriro erdibitzen baditut?
- Zortzi patata zati! -Arantxak-.
- Eta berriro erdibitzen baditut?
- Patata frijituak! -Patxiku Txikik-.

26. IRUDIMEN FROGA

Mendian ibilaldi bat egiten ari direla hala esan dio Karmelek Edurneri:

- Ea Edurne, imajina ezazu belardi horretan, bat-batean zu harrapatzera datorren zezena ikusten duzula. Zer egingo zenuke?
- Zuhaitz batera igo.
- Eta zuhaitzik ez balego?
- Kobazuloren batean sartu.
- Eta kobazulorik ez balego?
- Bordaren batean ezkutatu.
- Eta bordarik ez balego?
- Aizu, Karmele! Zuk zezenak harrapa nazan nahi duzu!

27. EKAINGO KOBAZULOAN

Egin dezagun atzera denboran eta sar gaitezen Ekaingo kobazulora. Kristo aurreko ez dakit zenbatgarren urtean gaude. Haurrak eskolatik iritsi berriak dira eta notak eman dizkiote aitari.

Notak irakurtzen hasi orduko kopeta ilundu egin zaio Harri Ekaitzi. Haurrari serio-demonio begiratzuz halaxe esan dio:

- Ehiza gainditu ez izana, tira... Badakit hartzak arriskutsuak direla eta urte sasoi honetan ongi ezkutatzen direla. Margogintza gainditu ez izana, tira... Margotzeko geneukan odol guztia gatzatu egin zaigu eta ez da modurik egokiena haitzuloetako hormak margotzeko... Baina Historia ez gainditzea! Liburuak orri bakarra du eta!

28. NORA JOAN

Joakin, Jose Marirekin ari da hizketan Zarauzko malekoian:

- Oraintxe bai ez dakidala zer egin. Badakizu bi alabak ezkondu egin zitzaizkidala, ezta?
- Bai, bai, jakin nuen bai.

- Bada, bat Bilbora ezkondu zitzaidan eta bestea berriz Gasteizera. Eta orain suhiak esan eta esan ari zaizkit, bata Bilbora joateko eta besteak berriz Gasteizera joateko.
- Arranopola, Joakin! Ez zara kexatuko! Horiek suhiak, horiek!
- Bai zera! Bilbokoak Gasteizera joateko esaten dit eta Gasteizkoak Bilbora joateko!

29. MERCEDES MERKEA

Ertzainek, Mercedes ikusgarria 3.000 eurotan erosi berri duen emakumea atxilotu dute:

- Zuk nahi duzuna esango duzu, baina zuk jakin behar zenuen autoa 3.000 eurotan saldu dizutenak lapurrak zirela; auto horrek merkatu normalean 90.000 euro balio baititu.
- Barkatu, baina nik uste nuen lapurrak Mercedes 90.000 eurotan saltzen zutenak zirela!

30. PUNTUALITASUNA

- Eta zuek nola lortzen duzue irakasle guztiak ordurako iristea ikastetxera?
- Hori erraza da! 30 irakasle gara eta 20 autorentzako aparkalekua dugu!

31. MEZU TRUKAKETA

Ikasketak egitera Londresera joandako ikasle tolosarrak mezu hau bidali zion amari:

“Kaixo ama: Londr€s asko gustatu zait. Adiskid€ asko €gin dut €ta asko ari naiz ikast€n. €z dut ust€ €z€r falta zaidanik €ta €z zait bururatz€n €skatz€ko €z€r. T€l€fonoz d€itz€a gar€stia d€n€z, m€zua €rantzut€ar€kin nahikoa izango da.
Mxx Zur€ s€m€a”

Berehala jaso zuen erantzuna:

“Semetxo maitea: EZ dakizu zenbat poztu naizen zure mEZua jasotakoan. Asko lasaitu naiz, batEZ ere, Londres gustuko duzula eta adiskidEZ inguratuta zaudela ikusita. Hasi al zara ingelesEZ hizketan? EZer behar baduzu esan lasai.
MaitasunEZ... Zure ama”

32. BELARRIKO EBAKUNTZA

Bi emakumek, zinemako sarrerak erosteko ilaran egin dute topo:

- Kaixo Martina! Aspaldikoa! Zer moduz joan zitzaizun belarriko ebakuntza?

Eta Martinak:

- Bai!

33. BETI BERANDU

Ikasturtea hasi denetik lurgi berandu iritsi da egunero eskolara. Irakasleak ezin du gehiago:

- lurgi! Gaur ere berandu? Horrelakorik gertatzen den azken eguna! Ez dizut gehiago onartuko berandu iristea! Jakin al liteke zergatik ezin zaren ordurako iritsi?
- Nik ez dut kulparik, Karmele! Errua eskola aurreko biribilgunean dagoen errotuluarena da!
- Errotuluaren errua? Zein errotulu, ordea?
- Hortxe dagoen hori, Karmele: "Eskola. Astiroago ibili".

34. IRLA BAKARTIAN

Karibe inguruan kruzeroa egiten ari zirela, itsasontzia hondoratu eta bi egun habe bati helduta igaro ondoren, irla bakarti batera iritsi zen naufrago taldea. Jana behar adina izanik, txisteak eta ipuinak kontatzen betetzen zuten denbora. Hilabetetara, txiste guztiak ezagutzen zituztenez zenbatzea erabaki zuten eta kontatu beharrean, zenbakiak esatea.

- Sei!

Eta naufrago guztiak barrezka.

- Zortzi!

Lehertu beharrean.

- Lau!

Eta bat-batean sekulako isiltasuna.

- Ez al duzue barrerik egin behar ala? - Lau esan duenak-.

Eta beste guztiek:

- Zuk ez baituzu txisteak kontatzeko graziarik!

35. ARAZOAK AUTOAREKIN

Aberaskumea etxera sartu eta egongelan telebistari begira dauden gurasoengana hurbildu da:

- Gabon, “xaharrak”! Uste dut autoa matxuratu egin dela.
- Zer gertatzen zaio, bada? – galdetu dio amak-.
- Uste dut ura sartu zaiola motorrera.
- Ura motorrera? –galdetu du aitak harriturik-. Eta zuk nola antzeman duzu hori, motorrei buruz ezer ez dakizu eta!
- Autoa igerileku barruan dagoelako...

36. IZEN ALDAKETA

Gizonak erregistro zibileko arduradunari:

- Izena aldatzera nator.
- Eta zein da zure izena?
- Pio Iturriberrigorrigokondokosagastibeltzakotxorialaieta.
- Eta zer nahi duzu jartzea?
- Txio!

37. HOBERA

Sendagileak gaixoari:

- Lasai egon zaitezke, atzo baino askoz ere hobeto egiten duzu eztula.
- Eta harritu egiten al zara, gau guztia entrenatzen pasa eta gero?

38. BANKETXEAN

Emakumea banketxe batera sartu da:

- Mesedez, aldatuko al zenidake ehun euroko billete hau?

Enplegatuak hartu du billetea eta:

- Baina, aizu! Billete hau faltsua da eta!
- Bai, noski! Horregatik eskatu dizut aldatzeko!

39. EZIN ADOS JARRI

Mikelen eta Josebaren arteko sesioak eta sestrak sekulakoak izan ohi dira. Auzoko guztiak jakinaren gainean daude. Gaurkoak, ordea, marka guztiak hautsiko ditu. Edo itxura hori hartu du behinik behin:

- Aski da! Ezin zaitut gehiago jasan! –egin dio garrasi Mikelek bere onetik aterata-. Hogeita bost urte daramatzagu elkarrekin eta denbora horretan guztian ez gara inoiz ezertan ados jarri!
- Hogeita sei, maitea, hogeita sei.

40. BEGIEN BISTAKOA WATSON MAITEA!

Sherlock Holmes eta Watson doktorea mendi aldera abiatu ziren opor egun batzuk hartu eta gero. Egun osoko ibilaldi luzea egin eta ongi afaldu ondoren, lo-zakuetan sartu ziren, atsedean hartu eta indarberritzeko asmotan.

Watsonek begiak itxi orduko, ordea, Sherlock Holmesek ukondo kolpe lehor batez esnatu zuen:

- Watson maitea! Esna zaitez! Begira! Zer ikusten duzu?
- Izarrak – erantzun zuen, galdera hura zertara zetorren ulertu ezinik-.
- Eta? –Holmesek serio- Zer esan nahi du horrek?

Watson, berehala jabetu zen; erantzun egokiren bat asmatu ezean, nagusi setatsu hark ez ziola berriro lo hartzen utziko. Lipar batez, aukera desberdinak oldoztu eta gero, erantzuna eman zuen:

- Hara Sherlock! Astronomoak, izarren kokapenaren arabera, ipar-hemisferioan gaudela esango lizuke. Astrologoak, berriz, Artizarraren, Marteren eta Jupiterren arteko gurutzaketa bitxi baten aurrean gaudela. Irrati-esatariak, gaueko 11ak direla. Mendigoizaleak, 1.235 metrora gaudela. June Ansoleagak, oskarbi dagoela eta bihar behe-lainoekin esnatuko garela. Eta nik esango nizuke, gaueko isiltasunak on egiten diola nire barne-orekari...

Eta begirada maltzurra jarritz, hauxe erantsi zuen:

- Eta zuk Sherlock, zer esango zenuke? Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Eta orduan, Sherlock Holmesek:

- Kanpin-denda lapurtu egin digutela! Begi bistakoa, Watson maitea!

41. PILULA LASAIGARRIAK

Morroi bat botikan sartu da:

- Egun on. Ba al daukazu pilula lasaigarririk?
- Bai, noski!
- Bada, har itzazu hiru, hau lapurreta da eta!!!

42. ARMAIRUA

Alaba urduri baino urduriago joan da amarengana:

- Ama! Ama! Egongelako armairua erori egin da!
- Baina zer diozu! Esaiozu lehenbailehen aitari.
- Lasai... Badaki... Azpian dago!

43. EZ ITZULTZEKO MODUKOA

Lan kontuak zirela medio, emakume honek Madrila joan behar izan zuen. Eguneke eginbeharrak amaitu ondoren, Plaza Mayor inguruko jatetxe batera sartu zen afaltzera. Entsalada hasteko, eta legatza bigarren plater gisa. Baina arraina jaten hasi eta hura ez omen zegoen ahora sartzerik. Kiratsa! Zerbitzaria inguratu zitzaionean hala esan omen zion:

- Hau baino arrain freskoagoak jan izan ditut!

Eta zerbitzariak erantzun:

- Ez hemen!

44. ERRIETAN

Amak alabari:

- Bai bai... Hark egiten duela eta, zuk ere gauza bera egin behar al duzu! Eta hark egingo balu, zuk ere salto egingo al zenuke teilatutik behera?

Eta erantzuna:

- Bai, behetik gora baino errazago.

45. HISTORIA

Azterketa garaia da eta Aratzen amak, ikasgai bakoitzean nola dabilen jakin nahi du:

- Eta historian, zer moduz zabilta?
- Nahikoa ongi! Hobeto ere ibil nintekeen, baina Karmele irakasleak egiten dizkidan galdera gehienak, ni jaio aurreko gertaerei buruzkoak dira!

46. BABALOREA

Karmele irakasleak handitzean zer izan nahi duten galdetu die ikasleei:

- Nik babalorea –erantzun dio eserlekitik altxatuta Amaiurrek–.
- Baina Amaiur! Zer diozu?
- Egia da Karmele! Hara! Goizero goizero leihotik bizilaguna ikustean honelaxe hasten da gure aita: “Ikusten al duzue babalore hori, ministroak bezala jantzita, bat ere lanik egin gabe, diruz josita, bere Mercedes berrian?”.

47. ANIMALIA

- Zer da “auk-auk” bat?
- ?!?
- Atzeraka dabilen ahate bat!

48. PENJOAK

Ametsek badu abilezia berezi bat; lana ingura dakiokela urrutira usaindu orduko, bere adimenak, izan daitezkeen aitzakiarik xelebreenak asmatzen ditu.

Goiz batez, bere pisukide Oihanek etxea txukuntzen hasi behar zutela esan eta instantera, hara non hasi zen gure Amets, jauzika eta imintzio nabarmenak eginez. Jauziekin batera, gainera, Ametsek eskuak airean zabaldu eta itxi egiten zituen, euliak harrapatu nahian ari izan balitz bezala. Aireari emandako kolpe bakoitzaren ondoren, eskua kontu handiz zabaldu, ea zerbait harrapatu ote zuen begiratu, eta ezer ez zegoela ikustean, atzera mugimendu bera:

- leeeeeeeeeppp! Ezer ez! Ea berriro! leeeeeeeeeppp! Ezer ez! Beste behin!

Oihan garrasi batean hurbildu zitzaion:

- Orain ere nik bakarrik txukundu behar al dut etxea? Bada, ezta pentsatu ere! Zertan ari zara orain?
- Ez al duzu ikusten? Penjoak harrapatzen –eta Ametsek jauzika eta imintzioka jarraitu zuen–.
- Penjoak harrapatzen? Penjoak? Eta jakin al daiteke zer diren penjoak?

Eta une batez, mugimendu oro geratuz eta bizkarra bilduz:

- Nola nahi duzu jakitea? Oraindik ez dut bakar bat ere harrapatu!

49. NOIZ JAIO

Egun batean, honako hau galdetu zion Karmele andereñoak Larraitzi:

- Aizu, Larraitz! Zu noiz jaio zinen?
- Bada egia esan, ziur-ziur ez dakit, baina oso oker ez banabil igandea izango zen.
- Eta nolatan dakizu hori?
- Ez bainintzen eskolara etorri!

50. NAHASKETA GOGORRA

Euskal idazleen inguruan hizketan ari zela, honako hau galdetu zion irakasleak Aratzi:

Aurten hogeita hamaika urte bete dira "Obabakoak" liburua kaleratu zenetik. Esango al zenizkidake egilearen izen-deiturak?

Aratzek ez daki zer erantzun eta irakasleak lagundu egin nahi dio:

- Bere izena Joseba Irazu da, baina goitizenarekin sinatzen ditu obrak. Asteasun jaio zen..... Bernardo....

Aratzek ideiarik ere ez duela ikusirik, Karmele aspertu eta erantzuna eman dio:

- Bernardo Atxaga!

Hori entzutean, Aratzek buelta erdi eman eta bere eserlekura abiatu da.

- Baina zer egiten duzu? -galdetu dio irakasleak haserre-.
- Beste bat deitu duzu eta.

51. JAKIN? DENA!

Sartu omen da irakaslea gelara eta:

- Zer moduz gabilta kultura orokorrari dagokionez, gazteok?

Ikasle guztiak isilik eta burua makurtuz, mahai gaineko liburuari erreparatuko baliote bezala disimuluan. Bat-batean Iraitzen ahotsa entzun da gela osoan:

- Gure etxean oso ondo, Jokin!
- Ah, bai? –irakasleak-. Oso ondo? Pozten naiz Iraitz. Eta hori nolatan?
- Bai! Aita eta bion artean dena baitakigu!
- Tira Iraitz... Hori ez al da askotxo esatea?
- Ez, ez, Jokin. Hori hala da; aita eta bion artean dena dakigu.
- Ah, bai? Orduan esango al zenidake oraintxe zein den Afganistaneko hiriburua?

Eta Iraitzek serio-serio:

- Kasualitatea! Hori aitzak daki!

52. IZENAK GALDETUZ

Egun hartan Arantza oso pozik sartu zen gelara, ahizpa txiki bat izan zuela esaka. Ahizpa gora, ahizpa behera, beste konturik ez zuen Arantzak.

Atsedenaldira patiora atera zirenean, Aratz inguratu zitzaion eta:

- Aizu Arantza, eta zure ahizpak zer izen du?
- Ez dakit! Oraindik ez zaio ezer ulertzen!

53. MATEMATIKAK

- Ea, Fatima! Esadazu zenbat den hamabi ken lau -galdetu dio Karmelek-.
- Bederatzi.
- Mesedez, Fatima!
- Zortzi!
- Oso ondo! Tori zortzi gozoki!

Eta aldamenean zeukan Odeiri:

- Hau amorrazioa! Jakin izan banu, hamabost esango nion!

54. IDENTIFIKATU BEHARRA

Duela urte batzuk, Donostiako autobusetan, geltoki bakoitzaren aurretik hurrengo geltokiaren izena esaten zuten.

Donostia aldera gehiegi inguratzen ez zen tolosar bat sartu omen zen behin autobus horietako batean eta bat-batean zera entzun zuen:

- Marie Curie!

Eta turista itxurako neska gazte bat jaitsi zen. Autobusak aurrera jarraitu zuen eta halako batean:

- Katalina de Erauso!

Autobusa gelditu eta emakume bat jaitsi zen. Eta pittin bat aurreraxeago:

- Jose Maria Usandizaga!

Berririo autobusa geratu eta gizon dotore bat jaitsi zen. Autobusak bere ibilbideari jarraitu zion, eta une horretan tolosarrak Gipuzkoa plaza ikusi zuen. Berak hantxe gelditu nahi, txoferrarengana inguratu eta:

- Aizu, ni Ane Martinez naiz. Noiz demontre jaitsi behar dut hemendik?

55. ARRANTZATIK BUELTAN

Amaia, arrantzarako jantzita eta kanabera eskutan duela dator Kale Nagusitik barrena.

- Ezer harrapatu al duzu? -galdetu dio Gorkak-.
- Bai! Katarro galanta!

56. BERDINTASUNA

Miren lan bila dabil eta Eztitxu adiskidea bere lantegiko berri ematen ari zaio:

- Gure lantegiak badu beste askok ez duten abantaila bat: ez dago sexu-diskriminaziorik.
- Harritzen naiz, bada.
- Bai, bai... Hala da. Gure lantegian gizonezkoek eta emakumezkoek soldata bera jasotzen dugu... Soldata miserablea berdina da guztiontzat.

57. HIZKUNTZAK JAKIN BEHAR

Sagutxo guztiak izututa daude zuloko bazter batean, kanpoaldean katua goseak baitago. Saguen ama, orduan, zulora inguratu eta zaunka hasi da:

- GUAU! GUAU! GUAU!

Katuak, zaunkak entzun eta korrika alde egin du sukaldara.

- Ohartu al zarete sagutxo maiteak? Hizkuntzak jakitea oso gauza beharrezkoa da gaurko munduan.

58. PIANOAN

Garazi negarrez sartu da etxera, Musika Eskolatik itzultzean:

- Baina zer gertatzen zaizu? –galdetu dio aitak arduratuta–.
- Pianoa jotzera eseri naizenean, beste guztiak barrez hasi zaizkit –erantzun dio alabak, oraindik negar zotinka–.
- Horren gaizki jo al duzu ba?
- Bai zera! Aulkirik ez zegoen!

59. OIHUAK

Dentistak, oihuka hasi den bezeroari:

- Baina zer ari zara oihuka? Oraindik ez naiz hagina ateratzen hasi eta!
- Baina nire hanka zapaltzen ari zara!

60. ZEBRABIDEAN

Amona zaharra zebrabidea gurutzatu nahian dabil. Aldamenean duen gazteari zuzendu zaio:

- Aizu, gazte! Lagunduko al didazu zebrabidea gurutzatzen.
- Bai, noski! Baina itxaron ezazu pixka bat, argia gorri dago eta.
- Hara bestea! Horregatik eskatu dizut, bada, laguntza! Berde dagoenean neu bakarrik ere moldatzen naiz!

61. EPAILEA ETXEAN

Lehen mailako futbol-epailea etxera iritsi da:

- Kaixo, maitea. Ikusi al duzu partida?
- Bai.
- Eta?
- Ordua hartu dizut okulistarenean, biharko.

62. AUTOESKOLAN

Maisuak halaxe galdetu dio gidatzeko baimena atera nahi duen ikasleari:

- Zer esan nahi du, bi haur kartera banarekin dituen hiruki batek?
- Eskolatik irten direla -erantzun du.
- Kontxo! Irten, irten... sartu ere sar zitezkeen, ezta?
- Ez, noski! Haurrak korrika doaz!

63. DENTISTARENGANA

Ama-semeak dentistarengana joan dira. Umeari bertara joateak ez dio batere ilusiorik egiten, baina amak behartu duenez... Sartu dira kontsultara, hasi da dentista lanean, eta halako batean, hauxe esan dio amari:

- Mesedez, esaiozu zure semeari azken aldiz, ahoa irekitzeko.
- Seme, zabal ezazu ahoa... dentistak eskua atera nahi du eta.

64. ALABARENTZAKO OPARIA

Gizona liburu-dendara sartu da eta errotulagailu kaxa eskatu dio dendariari. Ia begiratu ere egin gabe oparitarako paperean biltzeko esan dio:

- Seme-alabaren batentzat?
- Bai, alabarentzat.
- Sorpresatxo bat eman nahi diozu, beraz?
- Sorpresatxoa ez, sorpresa handia! Egin kontu, berak punta-puntako sakelako telefonoa espero du!

65. ITSAS AMODIOA

Dantzalekua. Gazteak dantzan. Albo batean, neska koadrila bat, eta neska baten inguruan, isiltzen ez den mutikoa. Halako batean, nazka-nazka eginda, neskak mutilari:

- Ahoa irekitzen duzun bakoitzean itsasoan banengo bezala sentitzen naiz.
- Ez da egia izango! Txoratzen zaitudan seinale da hori!
- Ez motel ez. Txorabiatzen nauzun seinale da hori.

66. EZAGUNA OMEN

Emakume batek, beste emakume bat gelditu du kalean:

- Barka, baina, ezagutzen al zaitut?
- Ez dut uste.
- Bada, ni seguru nago zure aurpegi hori beste nonbait ikusi dudala.
- Hori ezin liteke! Nik aurpegia beti leku berean eramaten dut.

67. IGOGAILUAN

Bi lagun sartu dira igogailura eta ateak itxi orduko, usain nazkagarria sumatu du bietako batek:

- Aizu! Barkatu, baina... zuk ez zenuen puzkerrik botako, ezta?
- Zuk bota al duzu? –erantzun dio zirt-zart besteak-.
- Ez, nik ez.
- Orduan, zertarako galdetzen duzu?

68. ARGIÑANO IKUSTEN EZ

Amona, Argiñano ikusteko irrikaz. Berrian egun horretako programazioa begiratu eta han markatzen duen orduan, jarlekuan eseri eta telebistari begira ipini da. Minutu gutxi batzuetara, alabari oihuka hasi zaio:

- Miren, Miren! Oilaskoa oso ondo ikusten dut, baina Argiñano ez da inondik ageri!
- Ama! Nola ikusiko duzu Argiñano! Mikrouhin-labeari begira zaude eta!

69. BETAURREKOAK BEHAR

- Mediku anderea, nire ustez betaurrekoak behar ditut.
- Ni ere horretan nago, baina zoritxarrez ezin zaitut lagundu. Hau aurrezki kutxa bat da.

70. OPERA ENTZUTERA

Behin joango Parisa eta bi tolosar musikazale hauek, ahalik eta ikuskizun eta musika emanaldi gehienetara joateko asmoz dabiltza. Maletak, bizkar zakuak eta poltsak hotelean utzi eta zuzenean Pariseko Opera entzutetsura jo dute:

- Gaurko emankizunerako bi sarrera, mesedez.
- Madame Butterfly?
- Ez, Madame Pagaldai!

71. SAFARIAN

Joan dira bi lagun safari batera eta oihanean zehar doazela, lehoi batekin egin dute topo aurrez-aurre. Eta orduan jabetu dira ez dutela, ez eskopetarik, ez bestelako armarik:

- Ederra egin diagu, Mikel. Eta orain, nola aterako gaituk hemendik?
- Hi lasai, Manu. Hi, mugitu ere ez. Ea konturatu gabe pasatzen den.

Manu ordea, lagunaz gehiegi fio ez eta korrika bizian hasi da, bestea ezustean harrapatuta:

- Baina hik zer uste duk, demonio arraioa, lehoia baino arinagoa haizela edo?
- Lehoia baino arinagoa ez! Baina hi baino arinagoa, bai behintzat!

72. FANFARROIKERIAK

Joxe Joakin harroa zen, bera bezalakoa. Behin, herriko tabernan, Saharan egon zeneko istorioak kontatzen hasi zitzaien lagunei:

- Mutilak! Hura zuhaitz piloa Saharan... haiek basoak... baso mutilentzat ez zen lanerako leku hoberik!
- Saharan? Baina hura ez al duk basamortua? Han ez zagok zuhaitzik!
- Ez, gu pasa ginenetik ez!

73. BURUSOILAK

- Zer alde dago burusoil eskuzabal baten eta burusoil zuhur baten artean?
- ?!?
- Burusoil eskuzabalak ileordea erosten du eta burusoil zuhurak, berriz, orrazia saltzen du.

74. ZAKURRA ZINEMAN

Emakumea zakurrarekin sartu da zinemara umorezko filma ikustera. Zakurra, barre eta barre aritu da. Amaitzean, aldameneari eserita zegoen ikusle batek:

- Erabat harrituta utzi nau zure zakur horrek!
- Baita ni ere! Liburua ez baitzizaion batere gustatu!

75. EINSTEIN

Ikasgelan erlatibitatearen teoria ari dira ikasten. Koldok halaxe esan dio Amaiari, liburuan ageri diren argazkiei begira jarraitzen duen bitartean:

- Bizkorra izango zen, baina Albert Einstein hau seko itsusia zen bada, gizajoa!

Eta hori entzutean, Amaiak:

- Albert itsusia? Benetan itsusia bere anaia zen... Frank!

76. GIZONA LARRI

Emaztea erditze-gelan. Gizona, ordea, koldar hutsa eta kanpoan geratu da, sartu gabe. Ezin inorekin hitz egin eta hor dabil, korridorean gora eta behera, kirioak dantzan, urduri.

Halako batean, erizaina atera da erditze-gelatik. Gizona lasterka bizian hurbildu zaio:

- Eta? Zer moduz joan da dena? Zer moduz dago emaztea? Eta haurra ondo jaio al da?
- Bai, gizona! Lasaitu zaitez! Ama-alabak oso ondo daude!
- Eta umeak ba al du nire antzik?
- Bai, baina hori ez da larria! Garrantzitsuena ondo dagoela da!

77. PLAYMOBILA

Playmobila tabernara sartu da eta:

- Freskagarri bat mesedez.
- Limoizkoa edo laranjazkoa?
- Berdin zait... Daukadan besoarekin bizkarretik behera botako dut eta!

78. DOMINISTIKUKA

- Zuek ba al dakizue nola egiten duten doministiku tomateek?
- ?!?
- Ket-txup!, Ket-txup!

79. HONDARTZAN

Irakasleak, autobusa hartu eta gela osoa eraman du hondartzara. Haur guztiek area ukitu orduko, arropak erantzi eta itsasoan murgildu dira, oihu eta zalaparta batean. Guztiak Iraitz izan ezik:

- Baina Iraitz! Zer egiten duzu hor? Zoaz bainatzera lagunekin!
- Ez, ez Jokin! Nik ez dakit igeri egiten eta gainera ez daukat txizagurarik!

80. NOLA ALDATZEN DIREN GAUZAK

Ama-alabak aspaldiko argazkiei begira:

- Eta nor da hemen hondartzan zure aldamenean eserita dagoen mutil eder eta lerden hori, ama?
- Hori? Zure aita!

Eta isilune baten ondoren, alabak:

- Eta orduan nor da gurekin bizi den gizon potolo eta itsusia?

81. OPTIKAN

Emakumea optikara sartu da:

- Arratsalde on! Hondartzarako sandalia pare bat nahi dut.
- Barkatu emakumea, baina hemen miopeentzako gauzak besterik ez ditugu saltzen.
- Horixe bada! Ni miopea naiz!

82. KAKAHUETEAK

Autobusean, kakahueteak jaten ari den emakumea, aldamenean eseri zaion haurrari:

- Nahi al duzu kakahueterik?
- Ez! Gizendu egiten dute!
- Eta zuk nola dakizu kakahueteek gizendu egiten dutela? –galdetu dio emakumeak harriturik–.
- Kontxo! Ez al dituzu elefanteak ikusten edo?

83. ILEA GARBITZEN

Lizarrako kanpinean, bi lagun dutxatan:

- Beñat, pasako al didazu zure xanpua?
- Baina zurea hor daukazu eta! Horren agudo bukatu al zaizu edo?
- Bai zera bukatuko zitzaidan! Baina hemen “ile lehorrentzat” jartzen du eta nik bustita daukat!

84. GALDERA LOGIKOA

Bat-batean erantzuteko galdera bat: Zuk lasterketa batean hartzen duzu parte. Oraintxe bertan bigarrena aurreratu duzu. Zenbatgarren zoaz?

- Lehenengoa zoazela erantzun baduzu, oker zabilta erabat. Bigarrena aurreratu eta bere lekuan jarri zara. Alegia, bigarren zoaz.

85. BESTE GALDERA BAT

Ea asmatzen duzun beste galdera hau: Korrika zoaz eta azkena aurreratu duzu. Zein postutan iritsiko zara?

- Azken aurrena iritsi zarela erantzun baldin baduzu, oker zabilta berriro ere. Estutu garuna, laguna! Pentsa ezazu pittin bat... nolatan aurreratuko zenuen azkena? Hori ezinezkoa da!

86. LAGUNEN ARTEAN

Alfer batek, aspaldian ikusi gabeko lagun aberats samarra aurkitu du kalean, paseatzen ari dela.

- Kontxo, Larraitz! Aspaldiko, zer moduz habil?
- Ondo eta hi?
- Ikusten dun, justu samar. Gogoratzen al haiz gaur hamar urte ezagutu ginela?

- Nola ez naun gogoratuko, bada?
- Eta hori ospatzeko emango al hizkidake ehun euro?
- Ezta pentsatu ere!
- Zer dela eta?
- Orain dela hamar urtetik ezagutzen haudalako!

87. BASOZAINAK ARRAZOI

Ainhoa, herriko erredera joan da arrantza egitera. Pare bat ordu pasa eta gero, basozaina inguratu zaio:

- Baina zuk ez al dakizu, hemen ezin dela arrantzarik egin?
- Ez esan! Arrazoi duzu! Goiz guztia daramat hemen eta ez dut arrainik txikiena ere ikusi!

88. SUDURZULOAN

Autobusean ume bat bere aitaren aldamenean. Ume gizajoa han ari zen sudurreko zuloa arakatzen. Behatza gora, behatza behera, barrurago, kanporago. Ziren eta ez ziren jarrerak hartzen zituen bere behatzak barrua ongi miatu zezan.

Atzealdean emakume arduratsu horietako bat zihoan eta haurra horrela ikusirik zera esan zion aitari:

- Aizu, gizon! Zure umeak ordu erdia darama behatza sudurzuloan gora eta behera, eta ez da gelditzen. Zergatik ez diozu beste zuloan begiratzeko esaten?

89. ESKELETOAK

Hilerriko eskeletoek ere, Inauteriak ospatu nahi izan zituzten. Motorrak lapurtu eta herrira binaka jaistea erabaki zuten. Halako batean, taldea gidatzen zuenak, azken eskeletoa hilobiaren harriarekin zetorrela ikusi zuen.

- Baina hi erotu egin al haiz edo? Nora hoa harri horrekin?
- Hik zer uste dun bada? Gauzak dauden bezala dokumentaziorik gabe atera daitekeela kalera ala?

90. MEMORIA TXARRA

Sartu da neskatoa etxean eta:

- Aita, irakasleak zigortu egin nau!
- Zigortu? Zer dela eta?
- Bai, zigortu egin nau... Alpeak non zeuden ez nekielako.

- Ondo egina! Horrela ikasiko dun, gauzak non uzten ditunan gogoratzen.

91. NONDIK BEGIRATZEN DUZUN

Bi pisukide hauek, elkarrekin bizi arren, oso desberdinak ziren. Bata oso goiztiarra zen, eta bestea aldiz, ohetik jaikitzeak erabat nagia. Egun batean, goiztiarrak ehun euro aurkitu zituen, korrika, itzuli txiki bat egiten ari zela. Etxera joan zenean, honela esan zion, oraindik ohean zegoen lagunari:

- Ikusten? Goiz jaikitzeak zorte ona ematen du! Gaur ere ehun euro aurkitu ditut.
- Ez dakit bada! Zu baino lehenago jaikitakoren batek ez du zorte handirik izan, galdu egin ditu eta!

92. IRRADIAZIOAK

Fisikako irakasleak zera galdetu dio errekupeazio azterketa egitera etorri den ikasleari:

- Ea, Amaia! Esazkidazu irradiazio-motak.
- Bai, noski! Alfa, Beta eta Ganba!

93. MUGAN

Biarritzeko aireportuan, mugazainak, maleta handi bat daraman emakumea gerarazi du.

- Zer daramazu hor barruan? –galdetu dio mugazainak-.
- Oiloentzako janaria.
- Oiloentzako janaria? Ireki ezazu berehala!

Ireki du eta maleta bideo-jokoz eta sakelako telefonoz beteta!

- Eta hau jaten al dute zure oiloek?
- Beno... nik bota egiten diet eta hortik aurrera, beraiek erabakitzen dute zer jan eta zer ez.

94. EZTULKA

Adineko gizona, botikara eztulka sartu da eta:

- Mesedez, emango al zenidake zerbait eztularen aurka?

Saltzailea, bere lagun batekin ari da hizketan eta askorik erreparatu gabe, parean egokitu zaion lehen xarabea eman dio gizonari. Gizona botikatik atera eta botikako nagusia sartzea, ordea, bat izan dira:

- Nor zen eztulka atera den aitona hori?
- Bezero bat.
- Eta zer eman diozu?
- Xarabe hori.
- Xarabe hori? Baina hori aringarri bat da eta!

Saltzailea korrika atera da kalera eta gizona botikatik gertu aurkitu du, zuhaitz bati helduta, aurpegia txuri-txuri, begiak gorriturik...

- Zer, aitona? Ez al duzu eztulik egiten?
- Eez naaiz aausartzen.

95. OLIBA BELTZAK

- Aita, aitaaaa!
- Zeeeeer?
- Oliba beltzek ba al dute hankarik?
- Ez. Zer ba?
- Orduan, kakalardo bat jan dut!

96. BIDERKETAK

Irakasle batek, bere ikasle baten etxera deitu omen zuen eta amari honela esan omen zion:

- Zure alabak ez daki biderketarik egiten eta komeniko litzaioke etxean ere aritzea. Beraz, ahal duzuen neurrian behintzat, lagun iezaiozue ariketak egiten.
- Lasai! Nire kontu!.

Telefonoa eskegi orduko galdezka hasi zaio ama alabari:

- Lau bider lau?

Eta alabaren erantzuna:

- Kotxe baten marka!
- Eta hiru bider bi?
- Kale Nagusiko supermerkatuko eskaintzak!

97. DOLAR BATEN TRUKE

Maiz, jarduera asko, berauek burutzeko behar den denboraren arabera baloratu ohi ditugu soilik. Eta horrelakoetan, oso oker gabiltza.

Konparazio batera, har dezagun ordenagailu erraldoi eta guztiz konplexu baten matxura konpontzera deitu zuten ingeniariaren kasua.

Ordenagailuaren balioa 12 milioi dolarrekoa zen. Lantegira iritsitakoan ingeniaria, ordenagailuaren pantailaren aurrean eseri zen, hainbat tekla sakatu, buruarekin baiezkotzeko keinua egin, bere kasa zer edo zer murmurikatu eta aparailua itzali egin zuen. Orduan, galtzetako patrikatik bihurkin txiki bat atera eta ia ikusi ezin zitekeen torloju txiki-txiki bati buelta eta erdi eman zion. Ondoren, ordenagailua berriro piztu eta lanean hasteko inolako eragozpenik ez zegoela frogatu eta gero, altxa egin zen.

Lantokiko zuzendariak ezin zuen sinetsi ikusitakoa eta pozarren kontua berehala ordaintzeko prest agertu zitzaion:

- Zenbat da?-galdetu zion-.
- Mila dolar.
- Mila dolar? Mila dolar minutu bateko lanarengatik? Mila dolar torloju txiki bat estutzeagatik? Badakit nire ordenagailua oso garestia dela, baina mila dolar eskatzea astakeria da! Ordainduko dizut, noski, baina kopuru hori justifikatzen duen faktura ongi zehaztuta bidaltzen didazunean.

Ingeniariak buruarekin baiezkotzea erantzun eta alde egin zuen. Biharamunean, lantokiko zuzendariak posta elektronikoz jaso zuen faktura. Irakurri eta, txintik atera gabe ordainarazteko esan zion kontu-hartzaileari.

Fakturak honela zioen:

Burututako lanak:

- Torloju bat estutzea..... dolar 1
- Zein torloju estutu behar zen jakitea..... 999 dolar

98. ATE OSTEKO PINTADATXOAK

Nekane eskolako komunera joan da. Galtzak erantzi, komunean eseri eta ate ostean dauden pintadatxoak irakurtzen hasi da: Gora gu ta gutarrak, Hemen euskaraz...

Berriro ere beste ahalegintxo bat alferrik egin eta gero, ate azpialdeko eskuineko iskinean, letra txiki-txikiz idatzitako esaldi bat dagoela ikusi du. Ondo irakurtzeko pixka bat altxa da eta zera irakurri du:

- Kontuz! Kaka kanpoan egiten ari zara eta!

99. KAMIOILARIAK

- Ba al dakizue zer alde dagoen kamioilari euskaldunen eta britainiarren artean?
- ?!?
- Kamioilari euskaldunek ezkerreko besoa dute belztuta eta britainiarrek aldiz eskumakoa.

100. ATZERRIRA

Joseba eta Naroa atzerrira elkarrekin doazen lehen aldia da. Trenez abiatu dira Hendaiatik Alemania aldera. Bagoian sartu, trasteak bere lekuan utzi eta eseri ondoren, Joseba galdezka hasi zaio Naroari:

- Ondo al zaude txoko horretan, maitea?
- Bai, oso gustura nago.
- Ez zara bada, hotzak izango?
- Ez, ez... zaude lasai.
- Aire-korronterik ez duzu sentituko, ez?
- Ez, inondik ere ez.
- Ondo zaude beraz?
- Ezin hobeto, Joseba!
- Orduan, axola al zaizu lekuz aldatzen bagara?

101. EGINBEHARRAK

Bikotekide batek besteari:

- Zer egin behar duzu gaur?
- Ezer ez!
- Atzo ere gauza bera esan zenidan!
- Bai, baina ez nuen bukatu!